


TESTIMONIO



FALSOA

JOSTIRUDI NEGARGARRI

— ETA POZGARRIA —

EGINTZA BAT ETA IRU KUADRO-ETAN

— MOLDATUA —



DONOSTIAN R. ALTUNA-REN

::: MOLDIZKIRAN. — 1918 :::

ATV


2482



H. 67359
F. 71286

15V
29482

TESTIMONIO



FALSOA

JOSTIRUDI NEGARGARRI
— ETA POZGARRIA —
EGINTZA BAT ETA IRU KUADRO-ETAN
— MOLDATUA —



DONOSTIAN R. ALTUNA-REN

∴ MOLDIZKIRAN, —1918 ∴

IRUDIGILLEAK

Joshe	(Arrantzalea)
On Antonio	(Amerikanua)
Itashio	(Semea)
Balbino	(Morroia)
Martin	(Joshen semea amar urtekoa)
Andres	} (Mikeleteak)
Domingo	
Maria	(Joshen alaba)
Maria	(On Antonion Alaba zazpi urtekoa)
	(Aurcho chiki bat)



*Lanchu au donkitzen dio egilleak lagun maite,
Gabriel Echeveste eta bere famili ongillari.*

Ramon Illarramendi



EGINTZA BAKARRA

Iruditegiak aurkestatzendu arrantzale kale bat; leioetan arropak zintzilik daudela. Ezker aldetik Joshen echia. Au azaltzen da otarre bat esku batean duela, eta bestean arrantzako tresnakin. Burtiña alchatzerakuan usten ditu lurrean.

LENENGO IRUDIA

Joshe bakarrik

¡Gaur, gaur dira sei urte, nere anai maitea Pedro ito zala! ¡Jaungoikoak zerua diola! Bai, ¡zer egun tristea zan egun ura! ¡Zer tranze estuak, ikusi genituen! ¡Ikaratzen naiz gogoratu utzarekin, bi lagun triste aien deadarrak! ¡Zortzi lagun atera giñan goizeko iruretan, izar eta illargi ederrarekin! ¡ez genduen uste gertatzia, gero gertatu zitzaiguna! ¡Nork pentsatu bear zuan, goiz eder arrek biurtu bear zuela, arratzalde ikaragarri artan? Atera giñan chit alai Jaunari ezkerak emanez egualdi ederragatik, ichas zabalera; geren lanean ordu batzuek egin genituenean abiatu giñan eche aldera. Abiatu giñaneako, aize kontrario batek gure chalupa jira biratu zuan. Denak larri giñan; alzuenak eldu zion chalupari; bañan, bik, ez; nere anaia eta Bartolo; bi gizonik zarrenak, etzuten izandu indarrrik guregana urbiltzeko. Biek, larritasun ikaragarri arrekin, elkartu ziran zendokiro, eldu zioten elkarri eta; ¡Oh!.... (*Es-*

kubak arpegiraturik Zer ekantza, edo erretra-
tu tristea daukaten gogoan.

Begiak beren lekuetatik ia aterean, eta kolore
ikaragarri arreakin, eskatzen ziguten la-
guntza.

Ezin itzegin zuten, aboa idikitzen bazuten
itzegiteko, ur gaziak ichi asten zioten. Nai
genioten lagundu, bañan etzan baliatu gure
desiorik.

¡Urak zeramazkien apartatzen gugandik, bi
gizon aien gorpuz batatuak! Urrutiratzen ziran
bezela, indarrak ere aitutzen zijoaskioten gi-
zarajoari; igarri zutenean bere igandik aparte
zeukatela zalbazioa, eta urrutitik.....(*Negarrez*)
¡urrutitik! azi ziran gu despeditzen, alchaturik
besoak, bogan apar tartean aienatu ziran ar-
tean! ¡Lagun maiteak! (*Egotenda piska bat*
begiak igortzias) Gu Jaungoikoak nai zuelako,
libratu giñan eriotz triste eta ikaragarri arre-
tik. Beste erriko chalupa batek, milagro batez
ikusit ginduen, eta lasterka zan etorri gu jaso-
tzera; ezkerak aieri. Bereala jaso ginduzten
berenera; eta emanik zituzten arropak eta jan
edanzk, konturatu giñan, bañan ez nai orduko
echeratu! Eta ¿non dira geroko aien emazte,
eta umechuan negarrak? ¡Ez, ez da erraz, ger-
taera onen erabakera ezaten! ¡Gaur beintzat
goiz asko nere mesachua entzun nuan, aien
animan onerako!

BIGARREN IRUDIA

Lengoa eta bere alaba Maria

MARIA

JOSE

¿Gaur arrantzara atera bear aldu, aita?

Bai, Maria bai; ni echian egonta, ez dago
ezer ere.

MARIA Kanpoan diotenez, ichaso gaisto samarra egon beardu bada.

JOSE Ichaso gaistoa ¿nork esan dizu?

MARIA Ez dirate neri esan; bañan Nikašio atzeko kale ortan nabaitu det esaten; ¡obe du aita, gaurkoangatik utsi! ¿Ez da gogoratzen gaur sei urteko doakabe artaz?

JOSE ¡Gogoratzeko modukoa altzan!

MARIA ¡Bai aita, alaše zan! ¡zer egun tristea! Egunero gure echera etorri, eta ¡zer negarrak egiten zituen izebak!

JOSE Bazuen zeri negar egin bai, gaišua.

MARIA Bai ala da; etzan ongi gelditu, ainbeste ume chikiekin. Ezkerrak biotz oneko jendeak asko lagundu ziotela, bestela...

JOSE Bestela bizimodu ederraren jabe egiten zan.

MARIA ¿Ez aldu gaur aita, mezacho bat entzun bear aien anima gašoantzat?

JOSE ¿Nik ala?

MARIA Bai bedorrek.

JOSE ¡Ai Maria, Maria! gogoan neukan bai; eta goizean goiz aski, egin nuen zintzo elizarako jirac'ua.

MARIA Ez det bada nabaitu, ¿lo egongo nitzan?.....

JOSE Zuaz Maria, entzun zazu zuk orain.

MARIA Bai, aita, banijoa bereala; orainchen laster izan bear du meza.

JOSE Denboraz bear du izan.

MARIA (*Abiaturik*) Gaur ez atera gero, aita..

JOSE Ikusiko det gero; bañan zuaz aguro, galduko dezu meza bestela

MARIA Banijoa bada; gero arte, aita.

JOSE Agur, nere alaba; eta asko errezatu.

MARIA (*Jiraturik*) ¿Non degu Martin? ez det ikusi gaur oraindik.

JOSE
MARIA

Kalean or ibilko da alperkerian.
¡Ori mutil lotzagarria! (*Joaten da*).

IRUGARREN IRUDIA

Joshe Bakarrik

¡Zer egingo zuen bada tristeak, lo! ¡ez daki oraindik, zer neke eia penak sufritzen dituzten gurasoak, umeak azitzen! Ez bada alperra dalako, ez orriñen ez du kupirik lana goizetik arratsera egiteko; ¡bai, egin bear ere bai! Nik bear bezelako alaba det; zintzua, garbia, langillea, umilla, eta leiala. Amar urtetako gelditu zan amarik gabe; eta geroztik, egiten ditu lanak inñoren laguntzarik gabe ¡Ez nitzan gaizki gelditu! seme bat, or dago ezkontuta baserrian, bestea, alprojakerian nonbaitean or ibilko da, eta nere Maria.....beti nere aldamenian, nondik eta nola lagunduko diran. Arra baño geiago ez da gelditzen, baño oso kontentu bizi da; gasteen kontuak; orain baditu ogei urte, eta bere kontzientzi garbiak merezi duan gastecho batek, segitzen dio. Aitak ez dio utzi nai Mariakin itzegiten; baina Inañoiok nola dan bere izena, debeditua dago, abiatu dan bidean segitzeko; eta Maria ere bai. Bañan, ¡aitaren esanak, eta alegiñak!

Bera nola izandu baitzan Ameriketean, eta diru piñka bat nola egin baitzuan, penacho du ardit baten jabe ez danaren gizon izan bearra bere semea. ¡Ez da saiatuan faltan geldituko!

Uste det alferrik zango duela baño; jarriko ditu traba franko. Ez nuan uste, orrelako gizonik zanik munduan. Ez du orrek kontzientzirik eta lotzik ere; gaiñtoz ez daki zer egin; ez dira arren belarritarako, inñoren konsejuak; be-

rea eta berea besterik ez du egiten. Bañan Iñašio..... berak Mariari esan dio orain denbora guchi dala, itz abekin «E. estutu Maria, ez du nere aitak gauz orrekin nai duenik egingo. ¿Aitak señalatu bear dit neri, emazte gaia?»

Ez, ori ez, nere biotzak ez du zure biotz garbia besterik desiatzen; bada ez det. esagutzen eta maitatzen ez dedan gauzan bearrik; zuretzat biziko naiz, zuretzat nere biotza, nik ez det nai diruzko ezkontzarik, nai det bakarra... naitasunezko eskontza, or conpon bitcz dirudunak, eta diruzaleak. Ez degu diru bearrik; osasuna da munduko nteretik ederrena, eta au eskatu bear degu eta lana kupirik gabe egingo degu...» Ez dirudi aita arren semea, ez, beste biotzik du Iñašio.

LAUGARREN IRUDIA

Joshe eta bere seme Martin. *Sartzenda au poto bat, eta aitzur batekin ordi shamarra; oñ-utzik eta burutzik.*

- MARTIN ¿Atera biar aldu gau, aita?
JOŠE *(Aserre)* ¿Zergatik galdetzen dek ori, zer da bada jaien bat, edo zer?
MARTIN *(Ĵendeari)* ¿Ez orisen, neretzat beintzat; ez jaieguna eta ez asteleguna, baizik.....aste latza! ai zer jipoia daukaten gaur!
JOŠE *(Ojuka)* Martin
- MARTIN Jauna.....
JOŠE Etorri ari onera.
MARTIN Orra, jakindu du zerbait; nainuke orainchen nere jipoia artu, ta kalia banegoke.
JOŠE ¿Ez aldeak aditzen?
MARTIN *(Bildurraz arrimatzen)* ¿Zer du?
JOŠE Jarritzik tresna abek denak, otarre ontan ondo.

MARTIN ¿Nora dioa? (*jendeari*) makillen baten billa
seguro aski.

JOSE Arraunak ateratzera.

MARTIN ¿Adarrak ateratzera? (*jendeari*) bare biurtu
ote da, edo zer.

JOSE Arraunak esandiat; (*aserretuaz*) eta ikusiko
dek, berriz orrela erantzuten badek....lotza-
gabea! (*joaten da marmarrean*).

BOSTGARREN IRUDIA

Martin Bakarrik

Arrazoi du aitak, arro samarra nago, eta edozer gauza esaten det noski. Eta jakiten duanean zer egin detan nik? ¿zer ote da pasako emen? Orain daukaten mokollo polit au pasako zait. (*Bere buruari*) Eseri ari Martin. (*eseritenda*) geroñiago jarriko dituk tresna oiek. Ara zer egin detan: goizean itak esan dit, chichareta joateko, artu ditut aitzurra eta potua atera naiz kalera, eta bereala gañean nuen Tiburchion semea, (nere moduko) alproja bat eta jakiña zegoan denbora gustia jostatzen galdu det. ¿Nola etorri orduan chicharerik gabe? ilko niñuen aitak ¿zer egin det? etorri naiz echera isill, isillik; eta Mariak apalean aitantzat ardua erosteko utziduan dirua ostu det, Vithorri chichareak erosteko asmoakin; irten kalera, eta lengo alprojarekin tabernara sartu, bat-baterako gauza zan. Topatu ditugian, gure moduko lagun batzuek batek au eta besteak ura, bertan gelditu naiz: piška bat arrotu nitzanerako, banituen jokorako lagunak. ¿Or ikusi ditut istilluak! Aien begian ichi erekiak; batek eskui eta besteak ezkerre, larri ibilli dituzte nere erriala zupatu arte. Zer egin-

go degu bada; pazientzia artu bearko...Au irrintzi egiteko gogoa daukat. Animo Martín, eta datorrena datorrela; lo zagabeantzat mundua. Orain irrintzi, eta gero Karraši. (*Alchazenda eta ondoren irrintziika*),

SEIGARREN IRUDIA

Lengoa eta Joshe, onek besotik eldu eta astinduas

- JOSE Irrintzi egiten dek, irrintzi ¿Non dituk chichareak.
- MARTIN (*Karrashika*) Utzi, utzi aita, emen nagon bitartean itzuli egin dirate, arrapatuko ditut.
- JOSE ¿Arrapatuko ditukela? ederki arrapatua daukak lenago ere, lotzagarri zikiña.
- MARTIN Barkatu aita ez det geiago egingo.
- JOSE Kanpora emendik (*jotzendu*).
- MARTIN Pozik (*Joaten da korrika*)
- JOSE (*Atzetik otzeginaz*) Ez dek ez gaur, eche ontan ankik zartuko.

ZASPIGARREN IRUDIA

Etortzen da Inashion echeko morroia Balbino, karta bat

Mariantzat duela

- BALBINO Egun on, Jose.
- JOSE Baita zuri ere.
- BALBINO Arrantzako asmuetan algera?
- JOSE Ala giñan, baño gure mitill sarrastraju orrek ez digu chicharrerik bildu eta ez dakit orain zer egiñ.
- BALBINO Gizona, edozeñek orrenbeste egingo dizu.
- JOSE ¿Edozeñek.....orrek egin didana?
- BALBINO Esan nai nuben, edozeñek emango dizkitzula chichareak.

- JOSE Izango alda, bat edon bat fabore ori egingo duena.
- BALBINO Bai gizona, bai, ez estutu ori besterik ez badezu...
- JOSE ¿Zer dabilkizu zuk Balbino, zerbabiltza alde abetan?
- BALBINO Emenchen, Iñashiok bialtzen nau kartacho au zure alaba Mariari entregatzera.
- JOSE ¿Mariantzat?
- BALBINO Bai, Mariantzat echian egongo da noski?
- JOSE Ez dakit etorri dan oraindik
- BALBINO Kanpora joan alda?
- JOSE Elizara joanda, baña onezkero echian biardu, deituko diot; izan liteke etorria izatea.
- BALBINO Deitu zaizu bai, zergatik joan bear det aguro.
- JOSE (*Deika*) Maria.....

ZORTZI-GARREN IRUDIA

Lengoak eta Maria

- MARIA (*Barrendik*) Jauna..... (*Asaltzen da leioan manteliña burutik kenduaz*) ¿Zer zabiltza Balbino, zer degu?
- BALBINO Zuregana etorri naiz.
- MARIA Neregana (*Larriturik*) ¿Okerren bat aldu?
- BALBINO Enkargu bat det zuri entregatzeko, jechi zaitea ateraño.
- MARIA (Or naiz berealashé (*gordetzen da*).
- JOSE Eta, nola zerate edo zer dio Iñashiok
- BALBINO Ondo gu, baña Iñashio gizarajua....triste beti.
- JOSE Jakiña dago, gizon gutiziozo orrekin ez liteke pakerik izan.
- MARIA (*Asaltzenda atean*) Emen naiz ¿zer dakartzu?
- BALBINO Ara zer dakaten, Iñashiok eman diran karta, zuri entregatzeko.

- MARIA ¿Inashiok? (*Gordetzen du pozez*) ¿eta zer dio?
- BALBINO ¡Oh!.....asko poztutzen da, zure izena entzun
utzarekin.
- MARIA ¿Bai? gizarajoa
- BALBINO Banijoa bada, nagusian isillik etorri naiz, eta
denbora pasatzen badet jakingo du eta.....[go-
sua jarriko litzake! Ario beaz, Maria eta Joŕe
berri onak irakurri Maria.
- MARIA Eskerrikasko Balbino, eta eskumuñak Ina-
siori.
- BALBINO Ongi da, emango dizkat eta agur.
- JOŔE Zaude Balbino, biek joango gera, nik ere
joan bear det Tibursiori chichareak kenduaz.
- BALBINO Guazen bada.
- MARIA Agur (*Gordetzen dira*).
- (*Erortzen da burtiña aurrean toki piskacho bat usten
duela.*)

BIGARREN KUADROA

BEDERATZIGARREN IRUDIA

Inashio Bakarrik; sartzen da Nekatua

¡Au lanbide tristea sortu zaigu lengo penak aski ez dirala! Nére aitak alegiñak egiten ditu nere eskontza Mariachokin galdu erasitzeko, bañan etzaio baliatuko Zenbat eta gorroto geiago daukan guretzat aitak, orduan eta naitasun geiago diot Mariari. ¡O!....zer mirabe garbia eta paregabea! ¿eta zer biotz, eta sentimentu onak dituen! asko eta asko maitatzen det. Inola ere ez nezake pagatu, neregatik eramaten dituen sufrimentuak. Askok sufritu bearra izandu du orain artean; bañan bukatu bear dute denboraz doakabe penagarri abek. Aitak gaur, orain denbora guchi dala, topatu nau

nere gelan librocho bat irakurtzen ari naizela Oso aserre antzekoa sartu da; igarririk bere aserria galdetu diot zer dakarren, edo zer pasazaion. Aditu nere itza, eta nigan etorri chit supitatu...ergaiko gausa zan. Nola nik ez nakien ezer, arriturik begiratzen nion begi larriakin; bañan aita etzan urrikaltzen nitaz. Ezagutunuben zerbait gauza ez bearra gertatu zitzaiola; galdetu diot zer duan eta erantzundit arrabi aundiz. Zu, seme gaiztoa, zu, alkar turik neska zirtzill lotza gabe arekin, moldatu zerate nere echian neuzkan diruan jabe egiteko; aisa nazute engañatu echeko jendeakin batu eta, bañan pagatu bear dezute. Zu, eta zure neska char ori, mikeletean erdian joan bear dezute gaur kartzelara, bai; lotza ederran jabe egin zerate Biak loturik alkarrekin, joan bear dezute, oiek izango dira zuen eztaiak. Jakin dezala jendeak garbiro zuen pekatua. Nik itz abek entzun nituanean, ez nakien zertatik asi nere edo gure kontzientzia eskudatzeko, ez genduen orlakorik pentzatu ezik guchiagorik ere. Gure eskuak ez dira beñere zikindu gurea ez danan jabe egiñaz, ez, ez nakien bada zertatik asi, eta esan nion. Ez aita, ez degu guk bedorren ondasun bearrik eta ez egin gu lapurtzat. Oztu badizkate, besteren bat izango da, eta ez gu. Nai nuen esan geiago, bañan an joanda meachatuaz eta marmar dariola. ¿Gu kartzelara kulparik gabe? ez orisen, agudo ibilli bearko du, gure besoak lotu nai badituzte. Orain nere Mariachongana nijoa, berri triste au adierasitzera. Nere asmoa da lenbailen erri onetatik alde egitea; ez gera gañerakuan pakean biziko. Izan bitez interesak beretzat, bañan Maria ez...izango da beti eta beti..(*Biotz*

gañean eskua jarri eta) neretzat. Badakit ga-
suak ez dirala ukatuko bere laguntzarik nai
dedana egiteko, jain da umilla tristea! ¡Ez dezu
merezi gaitz askorik, bañan ez dezu aspaldian
pake aundirik! Nijoan, denbork galdu gabe;
zergatik aita onezkero mikeleteangana joan da
ta (*joaten da*)

AMAR-GARREN IRUDIA

On Antonio eta bi mikelete; Inashio etorri zan lekutik

ON ANT. Beaz mutillak, esanak esan, e.....

ANDRES Bai, bai, ez du gure faltarik arkituko.

DOMINGO ¿Seguru dago, Inashio eta Maria dirala kulpa
dutenak?

ON ANT. Bai, seguru nago, eta izan ez ta ere zu zure
agintaiaren agindua egiteko zaude; zuek egon-
gp zerate, beko sotoan, nik deitu artean, nik
ikusiko det neska char orrek aitortzen duan
beren pekatua. Ez du aitortu naiko noski.. eta
orduan, deituko dizutet sokaz amarratu eta
eramateko.

DOMINGO ¿Ez alda aski emakume triste bat presonde-
gira eramateko, bi gizon armatuen errespetoa?

ON ANT. Askí bada, ala ez bada, nai det nik lotz aun-
di bat ematea, eta lotu ta joan beardu ¿aitu al
dezu?

DOMINGO Ondo dago, on Antonio, ondo dago bañan
uste det, orrek baño kulpa geiago dituztenak,
eraman izandu ditugula soka askorik gabe.

ANDRES ¿Beaz badakik kulparik ez dutela?

DOMINGO Nere kontzientzirako, ez, zergatik badakit
aski ongi zeir diran.

ANDRES ¡Askí! ¡askí!

DOMINGO Askí, bada gizona.

ANDRES ¿Inashio ere lotu bear aldegu?

ON ANT. Ikusiko degu or dagon, eta nola mintzatzen diran; bañan uste det neska traste ori eramateakin, aitortuko dutela ¿Zer erremedio gelditzen zaiote? (*Andres eta biak gelditzen dira isketan isilka*).

DOMINGO (*Bakarrik*) ¡Au gizona; bein bakarrik ez du Maria-ren izenik abotik atera oraíndik, gaizki esateko ez bada! ¿kulparik ote dute? ¡Ez, ez da inola ere posible bi aingeru oiek, orrelako pekatu-rik egitea! ¡Z naiz eratu egun oietan izketatzeko moduan, bañan ez dira ortarañotu ez; zerua orren seguro baleuka On Antoniok....

¡Au pena; bi ezagunik aundienak nere bas-terrean umill eta lotzaz beteak eraman bearra! ¿Non dira orain amabost eguneko kontu eta umore eder aiek? Anai bat bezela naukaten, nere aurrean etzuten isilikakorik, dena biak bakarrik bazeuden bezela, aditzen ziran izketan eta...¿Nola liteke ez nik jakitea, oraingo lotzagarrikeri au? On Antonio gizon gosetia da; eta lenago sinistuko det, bera gezurretan dabillega eskontza galerasteagatik ¿Zeñek ostu bear zioskan orreri diruak?...Nere kontzientziak, ez dit agintzen oiek presondegira eramatea; eta nere bearra da...laguntzea.

ON ANT. Abiatu bear degu mutillak; eta...(*Abiatu eta berriz jiratzen da*) ¿badakizute nolaz baliatu diran?

ANDRES ¿Nola?

ON ANT. (*Arrimatzen dira bi mikel-etiak*) Esango dizutek, etorri zaizkit bi gizon abere polit batekin, erosi nai detan. ¡in zan polita zaldichu ori eta konpondu gera ondo samar. Eskuetan nola ez neukan dirurik, igo naiz nere gelara kontuchua pagatzeko diru billa. Bai, ederki neurtu dizkiate pausoak!.....

ANDRÉS ¿Orduan egongo ziran erne?

ON ANT. ¡Bai ala zeuden, bai! Nere kucha idikideda-
nerako, deitzen ziraten oju aundiz. Arriturik
zer gertatzen zan, lasterka aterata nitzan nere
gelatik, kucha ichitzeko denborik gabe.....

ANDRÉS ¿Zer pasatzen zan bada?

ON ANT. ¡Zer pasako zan! bi gizon tratalari aiek,
ijito en batzuek izan bear zuten nere semeakin
elkartuak, neri joku ori egiteko.....

ANDRÉS ¡Bai, bai! ¿eta oju aiek zertaz ziran?

ON ANT. Ni jachitzeagatik.

ANDRÉS ¿Eta ijitoak bian al zeuden, edo alde egin
zuten?

ON ANT. ¿Bian egon?.....ni sotuan agertu nitzanerako,
tokitan zijoazten zaldi eta guzi... ..Eta ori aski
ez dala ¿zer uste dezute egin diratela?

ANDRÉS ¿Zer?

ON ANT. Ostu dizkirate, lengo zaldian tresna gusiak;
¡ez dirate gaizki farra egin! ¡Badakit, bai
echeko mirabea ere elkartua egongo zan! ba-
ñan orain ez diot ezer esan, gero konponduko
degu.

ANDRÉS Ijito madarikatu oiek, makilka ill artean ez
dago gauz onik. ¡Gaiztoz ez dakite zer egin!

ON ANT. Ori aski ez dala ¿non dezu geroko tragua?

ANDRÉS ¡Arrazoi faltik ez du, On Antonio!

ON ANT. Nere pena eta arrabiakin, joan naiz nere
kucha ichitzera konfianza gustiarekin; eta ¡or-
duan, orduan ezagutu det nere engañua! ¡or-
duan konturatu naiz zer zan tranpa guztia! Ez
dakit nola gelditu naizen ikara arrekin erori
gabe, buruz diruak edo sakucho paperesko
billeteakin zegoan leku; milla aldiz gogoz be-
giratutako artara. Semea echera etorri danean,
bere gelan artu det chit eztu, bañan, ¿zeñek
aitortu asi?

ANDRÉS On Antonio, ni beintzat gaiztoa izango nitzake.

ON ANT. ¡Bai, besteak ere, bail

DOMINGO ¿Ez du beaz aitortu nai? bada ori egia baldin bada, nik agintzen diot, Inašiori egia esan asiko diotala,

ON ANT. ¿Zuk? etziok esku charretan gauza.

DOMINGO Aitortuko dit egia, ni emen nagon bezin seguru

ON ANT. Ori nainuke bañan.....ez ¿nola?

ANDRES Ez da erraz izango.

ON ANT. (*Aserre*) kartzelan aitortuko dute ¿gogor artu gero?

ANDRES Gogortasunean, ez dit iñork eramango.

ON ANT. Ez dago barkaziorik; bat aski ez bada lotu biak; ikusiko degu zein diran fanfarroi oiek.

ANDRÉS Umilduko dira, bai.

ON ANT. ¡Bearko!

DOMINGO Bada neretzat, ez dute kulparik.

ON ANT. Neretzat bai, or dezu soka? (*Andres-i*).

ANDRÉS Emen det, bai jauna.

ON ANT. Guazen bada; Braulionean ardo churrupa bat egin eta.....gora.

ANDRES Eta ¿Joše echian badago?

ON ANT. Ura berriz.... ..kateakin lotuko degu.

DOMINGO Eta i, grilloakin (*iendeari*).

ON ANT. Guazen denborik galdu gabe; eta ¿gogor mutillak! (*Joaten dira*).

IRUGARREN KUADROA

AMAICA-GARREN IRUDIA

Burtiña alchatzerakuan, azaltzen da Marian echeko sukaldea; kañabel batzuek pareta kontratan daudela; eta bera, iruditan ezker, zillan eseria aldamenian seaskan aur bat daukala.

MARIA Nere Iñašio onak, ez du egunik utz egin ni

ikusi gabe atzo artean. Chit triste negoan okerren bat ote zuan etorri etzanean; bañan ez, gaur Balbinok ekarri diran kartachu ontan, esaten dit nola bere aitan agintzan bitartez, egondu bear izandu zuala mendi aldean: maiz nitaz oroituaz, begiak apartatu gabe gure erri alde ontara (*Emen asten da denboralea eta jotzen du trumoiak isit shamar*) ¿Trumoiak jotzen ote du?...ala izango da, ¿oriñen bear genuke orain! Aita ichasuan ta, etorria izango alda, *Aurrari eragiñaz*, irakurri bearditut berriz; bersoetan iskribatua dago. (*Aurrari eragiñaz ateratzen du kolkotik papera eta asten da kantari aurrari lo arrasteko amak kantatutzen auten doñuan*).

Looo... Nere maitea nere biotza
nai det nik zuk jakitea,
Aitak agindurik aserre aundiz
niztan joan mendi batea;
Obeditua nai det nik izan
naiz dala orain ta gero,
izanagatik aita gogorra
biontzat egun bat eskero.

(*Jotzen du trumoiak piska bat gogorro*).

¡Denbora gogortzen ari da! Naiago nuke,
Aita eehian bale goke.

(*Aurrari begiratuaz eta kantatuaz*

Lo..... Bearki batez kanpo aldean
izan det pasa bearra,
entzunik aitan agintza zorrotz
gau bat zu gabe izarra;

Lo..... Ai zer tristura sentitzen nuben
ikusirikan gordetzen,
eguzki ederra mendi atzean
dizdiz ederrak aitutzen.

(*Trumoiak eta chimistak*) ¡Jesus Maria!

¡Au denbora jartsen ari du! Orrela segitze
ezkero, ez da Iñasio etorriko.

(*Paperari begira kantatuaz*).

Nere begiak arkitzen ziran
eguzkiari begira,
nola zijoan oso poliki
egongo ziñan tokira;

Lo..... Batean gogoratu zitzaidan
zuloan egonagatik,
zu ikustea chit erraz zala
aurreko mendi arratik.

Lo.....(*Denboralia dijoa gogortzen*).

¡Abek trumoi eta chimista karagarriak!

¡Ikaratu bear du bakarrik egotia! etorko
alda laster aita edo Iñasio.....

(*Kantari*) Salto biz bertan arkitu nitzan

desio nuan lekuan,
bañan alferrik zala maitea
etorri nitzan kontuan;

Lo..... Biotz aundi izanagatik
zuretzat beti Maria,
luzea zan an chiki gelditzen
ikusitzeko kalia.

Lo..... Etorri zan belz, gaba tristea
ta illundu nere paria,
barren barrendik otz egin nizuan
jadio nere Maria!

(*Aurrari*) ¡Nere maitea, zer lo ederra dau-
kazun! ¡zer gauza ederra dan, orrelako aur
iñillak izatea! etzait iruditzen nerea ez dala! ¡zer
polita dagoan, bere ille kişkurra-kin! ¡ez dau-
kazu gaşuak, zure aurrean dagoana bezelako
sufrirenturik!

Zure aita, guk ikusten dituguz bezelako ko-
meririk ikusi gabe ezkonduzan. ¡Ez da gaitz
guk baño eragozketa guchiago izatea! ¡Alegiñ.

egiñ faltan, ez dirade geldituko! (*Leiotik begi-
atuaz*) ¡Au denboralia etorri zaigu; eta aita
oraindik etorri gabe! Lagunen batekin ego go
al da.

Eta Iñasio?...laster onezkero etorriko al da;
ederki zaletua nago itz aspertu bat egiteko.
Gaur ere zerbait esango zion aitak oiturik
galdu gabe. ¡Beti aita erritan, nerekin jolasten
dualako! (*Fotzen du trumoiak gogor*) ¡Jesus,
denboralia aunditzen, eta ez aitik, eta ez Iña-
siorik ez da ageri! non ote dira? ¡Jesus ona,
lagun zadazu tranzel!

AMABI-GARREN IRUDIA

Lengoa eta Iñashio

- IÑASIO ¡Maria, Maria!
MARIA Emen zīñan, Iñasio ¿Zer dezu orrelako larri-
tasunarekin?
IÑASIO ¿Zer detan, Maria? ¡berri charrak
MARIA ¿Orrren charrak? ¡Banuen bildurra, bai! Noiz
akabatu bear du, zorigaizto madarikatu onek!
IÑASIO ¡Laster!.....Maria; gauza bat bear dizut esan,
bañan....bildurtzen naiz.
MARIA ¿Bildurtu?
IÑASIO Bildurtzen naiz, jarrī-ko etzeralako nik nai
nuken gauza egite a.
MARIA ¡Ni bai, Iñasio; zurekin iltzeraño!
IÑASIO Guchigokin erremediatuko degu.
MARIA Bañan, ¿zer da? zer pasatzen zaizu? esan zaida
zu agudo, Iñasio.
IÑASIO ¡Begara Maria! ukatzen badirazu okerrago
izango gera.
MARIA Ukatu nik zuri, ez beñere ez dizut ukatuko.
Ni zurekin joango naiz, zure pausoan ondoren.
Sufritu bear bada, nai det sufritu zurekin ba-

tean. ¿Nola nik atzi nezake nere laguntzik gabe, neregatik orrenbeste lanbide eta pera eramaten dituaná? ¡Inola ere ezi!

IÑAŠIO Ori nai nuen jakin Maria; bada nere etorrera gaurkua orren estu eta larria zan....aita bānān len etortziagatik. ¡Maria gauza bearra da chit, gaur echeontatik alde egitea. Aitakiñ izandu det gaur...¡Leportzat egiñ gaitu!.....
(*esan nai luke baña presakin ezin du bukatu*)
.....¡ez dizut orain esangol Kartacho bi egitera nijoa, eta presta zaitez ni etorri artean.

MARIA ¿Zenentzat?

IÑAŠIO Bat gure morroi Balbinorentzat eta bes ea zure Aitarentzat; lasaitu ditezen gure falta nabaitzean.

MARIA Eta ¿nora zuaz karta oiek izkibatutzera?

IÑAŠIO Aldamereko estanko ortara; orko andreakin konponduko naiz.

(*Abiatzen da; eta ikustean aur bat seaskan, arriturik galdetzen dio*) Norena dezue aurrhu au Maria?

MARIA Nere illoba, Ināšio...

IÑAŠIO ¡Al...anaiana izango da e...?

MARIA Bai; badakizu nola baserrira eskondu zan, bada ekarriasi egin det kontu egiteko. Oneri begira jarri, eta nere penak kontatuaz, onek lagundu bear balira bezela egoten naiz; ¡gašua!
(*Aurrari musu emanaz*).

IÑAŠIO Eraman z zu Maria, aur ori gelara; nik izkibatuta utziko diot zure Aitari, lenbailen jaso dezaten bere gurasoak.

MARIA Zuaz bada agudo, lenbailen etortzeko.

IÑAŠIO Denbora guchi barren etorriko naiz; ¡Laster arte, Marial (*Foaten da*).

AMAIRU-GARREN IRUDIA

María bakarrik

¡Oh Jaungoiko maitagarria; zure laguntza eskatzen dizugu, gure intentzio ontan, ongi atera gaitezen! ¡Erregutzen dizut biotzetik, agertu dedilla, charkeri onen pekatariak! ¡Gu kulparik gabe, gaituzte lapurtzat eta gaistakeri gezurresko askon jaben egin! ¡Ez degu Jauna beñere gauza charrik egiñ! ¿Zergatik orrenbeste pena eta disgusto bear ditugu sufritu? ¡Orregatik Jauna, erregutzen dizut, azaldu dediela pekataria, gure konzientzia errian aurrean, garbi azaldu dedin! ¡Sentsua galdurik, eta oso itzutuak ez dakigu zer eguiten degun! ¡Ez da Jauna modurik iñon, gure zoriontasun galdua berriz gerenganatzeko? ¡Komeni bada eskatzen dizut, eta egin dedilla zure borondate santual (*Belaunikaten da*).

AMALAU-GARREN IRUDIA

María belaunikatua dagola, zartzen da On Antonio ishil ishillik

ON ANT. Belaunikatua dago ¡ja! ¡ja! zerbait jakin eta damutuba. Obe du, bai; dirudien bezela aitortzia, gañerakuan pagatuko du ¿Ote da iñor besterik echian? (*begiratuaz*) Ez diruri, Joše arrantzan izango da, eta Iñasio gaur etzan etorriko; ¡zerbait igarri du arrek ere, etorri ez daniel! Ederki etorri zait, bakar ik bere burua ikusten duanean iñoren laguntzarik gabe, ikaratu eta aitortuko duela uste det. Ikusiko degu, damutua dagoala diruri (*Deika*)! María!..

MARIA

(*Alchatzen da eskapa egin naiean; bañan On Antoniok eltzen dio esku batetik*).

¡Oh!..... On Antonio ¿Zer du garai ontan
eche ontara etortzeko? ¿noik ekarri du?

ON ANT. Bakarrik etorri naiz; badakizu, arrazoiarekin
dabillena, ez da ikaratzen nun nai sartzia.

MARIA ¿Zer arrazoi du bedorrek?

ON ANT. Zer arrazoi detan, orain ikusiko dezu ¡Zuk,
nere semeari burua berotu diozu neri dirua
lapurtzeko! ¿ez da eguia?

MARIA ¡Oh! ¿Uste du bedorrek, Iñas̄hiok eta nik
orrelako charkeririk egiteko ¿riñik degula?

ON ANT. ¡Aski, ez naiz ni onera izketara etorri, aitortu
emen, bestela!....

MARIA Bestela zer?

ON ANT. Ikusiko dezu nola aitortuko dezun, onian
nai ez badezu, nik jakingo det zer egin Zurekin.

MARIA Ai on Antonio, hai, bai, ez dauka kupira aun-
dirik iñori orrela osasuna galdu asitzen ibiltze-
ko. ¿Iruditzen zaio, beaz kulpa detala? Ongi
egiten du, errezelarik badauka; bañan, ¡denbo-
rakin erantzungo dio arpegira jendeak, orain
neri irachi nai dian kargu izugarri ori!

ON ANT. ¿Ez dezu aitortu nai? bada zure ezurak
presondegian geldituko dirá. ¡Etzera ezkon-
duko, ez! ¡zure gaste denbora eta uste det
bizia ere an utzi bearra izango dezula!

MARIA ¿Nola liteke, On Antonio, ez dan gauza aitor-
tzia?

ON ANT. Ez det geiago zure abotik itzik entzun nai.
¡Akabatu dira emengo festak! (*Ojuka*) Andres
igo zaitzte.....

MARIA ¡Orra, mikeleti ki! ¡Jesus, Jesus! au lanbide
triste sortu zait.

ANDBES (*Sototik*) emen gatos.

MARIA ¿Zer, bi gizon dakartzki ni emakume triste bat
kartzelara eramateko? Fabore chiki bat eska-
tzen diot, On Antonio; azkenekoa izango da,

Joango naiz bakarrik; ez ni utzi On Antonio. bi gizon armatuen erdian eramaten.

ON ANT. Erdian eta gañera eskuak atzera amarratuak dituzula, joan bear dezu; ez dezu amurrik eman nai, bada ez naiz zu baño bate ere guchiago. Onari, ontasuna, eta zu bezalako gaiztoari, orrela penak ematea gustatzen zait.

AMABOST-GARREN IRUDIA

Lengoak eta bi mikelleteak

ANDRES ¡Emen giñan On Antonio!

ON ANT. Badakizute zertara ekarriasi sailuztean; barkatuko nion, bañan arkaitza baño gogorrea da; bada sokaz ondo lotu eta..... ostikopean eraman nere begian aurretik.

MARIA ¡Barka zaidazu Andrés, Jaungoikoagatik; joango naiz bakarrik, kupi zaitezte, nitaz ez bada ere, nere echekoagatik!

ON ANT. Ez da orain denbora; ¡lotu! ¡lotu! eta gogor. (*On Antonio asitzen da gelak miratzen maiz sartu eta aterias*).

MARIA ¡Andres fabores! ¿zer esango dute ni kalean ikustean, bi gizon armatuen erdian? nere denborako lotzaren jabe egiten naiz, ¡etzaitzela izan orren gogorra, gogoratuko naiz beti eta betil..... ¡Oh!... ¡nere biotzan saltuak! eziñ nitake geiago oñan gañean egon ¡Andrés, urrikal zaitez biotzik badezu; aitortzen dizut zimetan kulparrik ez degula; badakizute oik esan gabe, gu zein geran! ¡Ezin det geiago! ¡ezin irichi det gauza au!

ANDRES ¡Kupitutzen nazu, Maria; ¡barkatuko nizuke poz aundiarekin, bañan badakizu; ¡agintarian agindeak!... zorrotzat izaten dirala.

ON ANT. (*Gelako atetik*) ¡Zer! ¿ez al zerate atrebitzen zirzill ori lotutzea?

- MARIA ¡Bai gizona, lotu nere bildur bazerate, ez naiz joka asiko!
- ADNRES ¡Gogorra nitzan Maria, bañan tranze ontan uste det nere ama lotu bear banuke ere, nere biotza ez litzakela orrela limurtuko.
- DOMINGO ¡Ez ez det geiago sufrutuko, ez det utziko kulparrik gabeko emakume garbi au ichura ortan eramatea: ni ateratzen naiz onen jabe.
- ANDRES Beizak gero Domingo, zer egiten dekan.
- DOMINGO Ez dit ajolik, galduko ditu armak eta denak bañan ez naiz oneri lagundu gabe geldituko.
- ON ANT. ¿Zer, ori ere badegu?
- DOMINGO ¿Gauz aundia iruditzen altzaizu?
- ON ANT. Bai aundia bezelare.
- DOMINGO Neri ere aundia iruditzen zait, Maria presondegira eramata, eta orrengatik lagundu naidot. Airu al du?...
- ON ANT. Arritzenaiz, zok egiten dezuna egitea.
- ANDRÉS (*Domingo-ri*) Utzitzik chorakeri oiek egingo diagu bakarrik bialtzeko modua, eta ez adilla estutu.
- DOMINGO ¿Nola? Ezin liteke ¿ez dakizu bera gurekin batean etorriko dala?
- ANDRÉS Arrazoi dek, ez dik alde egingo gungandik.
- ON ANT. Tira, tira, Andrés; ez neri ernegatu asi, lotu chorakeri guchikin.
- MARIA ¡Lotu! Andres, ¡lotu! ez neregatik zure familia negarrik eraman; ¡ez du gizon orrek biotzik!
- DOMINGO ¡Ez, nik ez? datorrela nigan eranzun garri guzia...
- ON ANT. (*Arrimatzen da, eta eltzen dio armatik Domingo-ri*). B arko utzi.
- DOMINGO Ori, nai ba det.
- ON ANT. Bai ta nai ez badezu ere (*On Antoniok kendu nai dio arma baña Domingok eltzen dio gogor*).
- DOMINGO Begira, ¡poliki, poliki! e....

ON ANT. Nere barren guzia kiškaltzen daukat... ¿Nik barkatu iri? ez. (*Arma eskutik kentzen dio.*) Usten dek, edo bertan ill otza nai dek gelditu? (*Armakin apuntatuas*).

DOMINGO Tira, gizon lotzagarría, tira, ez det ajolarik ill ta ere.

AMASEI-GARREN IRUDIA

Lengoak eta Iñashio, au sartzen da arriturik

IÑASIO ¿Zer da gaur eche ontan? ¿zer dira, lapurrak edo zer?

ON. ANT. Lapurrak, bai. (*Aserre*).

IÑASIO ¡Oh Aita, Aita! ¿zer iritzi guchikin, eta zer gogor obratzen duan kulparik gabeko bildoch, eta laguntzik gabekoakin!

DOMINGO Nerean faltarik beñepen, ez dezute izango.

IÑASIO Eskerrikasko.

DOMINGO Ori da, kontzientziak didana; badaikit kulparik ez dezutela, bada ni, zuekin.

IÑASIO (*Aitari begiratuaz*) Zer egin bear digu aita? Gure odola iñurizen ikusteko zaletua badago, ez pausorik atzeratu; eskuetan daukan arma orrek arrasoiakin eskatzen badu gure bizia, ez degu geiago sufritu nai; bañ n gure odola bedorren kontzientzian gain joango da. Denborak erakutziko dio, orain gurekin egiten duana nola izango dan gausa izugarri bat, zeñak egun gozorik munduan ez dion emango (*Maria eskutik artuaz*), Aurreko aldian dauka kontrariorik aundiena bedorren iritzian; eta ona, ni ere, ustez bedorren seme umilla; eta eskatzen diot ez bizia, baizik gure sufrimentuak lenbailen akabatu ditezela.

AMAZASPI-GARREN IRUDIA

Lengoak eta Joshe; au sartzen da On Antonion alaba ohikia besotetan daukala, onek eskumuturrean saku ohiki bat lotua, eta biak buztiak. On Antoniok, esagaturik bere alaba arma lurrera bota, eta salto batean gañeratutzen saio Jósheri.

ON ANT. Oh.....Nere alaba maitea, Ikusten al dezute kulparik duten edo ez? ¿Nondik edo zertara dakarzu nere alaba eche madarikatu ontara?

JOSE (*Pachara aundiarekin*) Chiš.....¡Poliki, poliki, izt niek; adiskidea!

ON ANT. ¿Zergatik?

JOSE Aditu beza, eta gero esango du zergatik.

DENAK ¡Bai, bai esan!

JOSE Esango det bada, Gaur, denboralia nola bai zegoen, ez naiz ichaso zabalera irten. Denboralia izan arren, nere echian nola ezer ez dagon ni tabernara joatekin, atera naiz ichasua gogortzen asten zan tokiraño, arrai batzuek ateratzen ote nituen. Nere batelchuan triste samar ari nitzan maiz ichas zabalera begiratuaz: alako batean sentitu ditun karrasi izugarriak; igarri diot norbait larri daillena, begiratu alde guztietara, bañan, alferrik; ez nuben inor ikusten.

ANDRES ¡Ume gañua otzak dagol! ekatzu onera nik oiera eramango det, piska bat berotu dedien.

ON ANT. (*Ikuzten duanean alabak eskuchotik daukala sakuchua oju aundiz esaten du*).
¡Nere diu-ki!

ANDRES Egin gizona ez eztutu; ez dizugu estuko, or izango dituzu gero ere.

ON ANT. Bai.....bañ kontatu egin nai nituk. (*kentzen da sakuchua aurrari*).

IÑASIO Gero kontatuko ditu; orain adizagun Joshek

esaten digun gertaera, eta zu; Maria! (*gero aitari*) zusten dio aita, itzultzeko beldurrik gabe Mariari, Andreñi arrebachua oyeratzeko laguntzen?

ON ANT. Neregatik, nai duan guzia.

IÑASIO Beaz lagundu zaiozu, Maria; eta zuk Joñe, bukatu zazu aguro asi zerañ ertaera.
(*Ateratzen dira Andres eta Maria, du aurra besuan daukala lastanduaz*).

DENAK Esan, Joñ esan.

JOÑE Nola iñor ikuzten ez nuen, eta karrañiak gero bañor larritzen ari ziran, ebakirik amarrak abiatu naiz nora ez nakiela. Uste gabeko batean, ikusi d-et arrokatik ia putzuratuan zagoala neñka chiki bat. Abiatu naiz egiñal guztian beregana, eta ia bertaratu naizen garaiean: indarrak aitu eta erori da putzura.

DOMINGO ¡Gizarajoal

JOÑE Ezin nuan ura nai beziñ aisa ebakitzen, eta nai aiña indar egin ere ez. Katañka larri artan nabillela arraona autzi.

DENAK ¿Nola?

JOÑE Ez dakit nola; orduan itzuturik nere burua, saltatu naiz putzura ia arrapatzen ote nuan; eia bertaratu naizenean, gorde zait ur gañetik.

DENAK ¡Oh!....

JOÑE Bañan Jaungoikoañ nai zuben, ni ere zanbuturik, nere atzaparra trabatzea eta ekarri det nere echera on ustean aldeago zalako. Orain On Antonio, bedorrek erabakko du bere irizian, ongi edo gaizki egin detan.

ON ANT. ¡Milla esker, Joñe; milla esker, zor dizut egin didazun meserea-gatik. ¡bañan diru oieki zoolaz zituen nere alabak?

JOÑE ¡Arriturik nago ni ere, On Antonio. ikusi

diot sakuchu ori, bañan ez naiz deliberatu ikustea.

EMESORTSI-GARREN IRUDIA

Lengoak eta Balbino; sartzen da au oso estutua eta nekatua.

BALBINO ¡On Antonioli! ¡nagusial! ¡Iñasioli! gausa bat jakindu det orain berriro, eta lasterka etorri naiz beorri adierazitzera.

IÑASIO ¿Zer da gauz ori?

ON ANT. Jakin zagun lenbailen.

BALBINO ¿Zer lan? ikusiko dute. Milagro aundi batez aditu ditut itz batzuek eta.....

ON ANT. ¿Nola aditu dituzu?

BALBINO Esango det bada nagusia; barkatu lezaioke Iñasio eta Mariai; ez dute oiek kulparik.

ON ANT. Jakin zagun bada z-nek duen.

BALBINO Ez naiz atrebitzen esatea.

ON ANT. Gizona, zeren beldur zera; esan lasai, esagutu dezagun zein dan fanfarroi ori.

BALBINO Bada fanfarroi ori da.... ¡au esiñ esana!

IÑASIO Gizona, ikarak zaude aitortzeko?

BALBINO ¡Ambrosi da b!

(*Denak gelditzen dira arriturik*).

ON ANT. Zein zehetako mirabea?

BALBINO ¡Bera jauna!

ON ANT, Ikusten dezute istillu au (*Balbimori*) Bañan Anrosik kulpa, eta ¿nola zituen nere alabak diruak?

BALBINO Ori esatera etorri naiz; orien da orain jakindu detana. Goizean joan naiz bedorrek dakien bezela errotara, eta andik echera natorrela, ikusi det Ambrosi ijito antzeko batekin izketan eheko paruta kontra. Ni arriturik, nola ez bainuen beñere inorekin ikusi pensatu det gizon gaien bat egin ote zuan: eta jakin nai

aundi ura ezin bentzutu nuan, eta joan naiz echera gorde bide bate ik. Astoa ukulloan bere sakua bizkarrean duela utzi det, eta igo naiz lasterka, izketan zeuden parek leiora. Andik entzun edo jakin ditut tranpa denak.

ON ANT. ¿Zer esaten zuten?

BALBINO Esaten zion Ambrosik.....Ederki moldatu gera; ez dezute malezi guchi inola gogoratu zerate? ¡Abek!.....eta ijito antzeko arrek esaten zion..... Ez naiz ni gogoratu; bestea da orrelakua, demoniño guzi-k berekin ditu. Orrek esan ziran; aski degu echeko mirabearekin konpon-tzia, eta arrek engañatuko du echeko alaba Mariacho, eta guk nagusia sотора jechi asitzen degunean, Mariachok artu dezala kuchan da-gon sakua, eta eraman dezala arroka beltzaren ondora; eta an egon dedilla bere anai Iñasio-ren zai: Eta Ambrosik berriz esaten zion; oneskero allegatu da bere sikuchuakin. Au entzun deta-nin igarri diot zer pasatzen zan; eta lasterka bedorren billa atera naiz, eta jakindudet onera etorri dala bi mikeletekin.....

ON ANT. Ondo da, ondo da; naikua jakindegu, ¡nik konponduko di ut! Barkatu bada jaunak, ikus-ten desute azaldu dirala lapurrak.

DOMINGO Esaten nuen nik ¡Ori falso testimoniya!

ON ANT. Egिया Domingo, falso testimoniya, eta galan-ta alare jaso det. Bai, esan dezu bein baño geiagotan, abek ez dutela kulparik. Orain bearra da segituan aiek arrapatzea. (*mikeleteari*) ¿Zer bear dezute mutillak? Eskatu nai dezutena.

ADNRES On Antonio: guk iñori ez genezaioke eskatu ezer ere.

DOMINGO Nik bai, eskatzen diot, On Antonio Iñasio eta Mariari, ez geiago gerrik emateko; eta beren biotzak diotena lenbailen egin dediela.

ON ANT. Bai, agudo oien aspaldiko deseoa kunplitua geldituko da. (*mikeletsari*) Zuazte presaka lapurrak arrapatzera, eta gu Joŕe. ...guazen segituan erretore jaunaren echera, igandean Maria eta Inŕasion pregoia egin dezala enkargatzera. Zneri eman dizutedan deskustoa orrela astu asi nai det.

ON ANTONIOK JENDEARI

*Testimonio falsua nion
jaso nik gaste aberi
eta azkenik barkaziyua
bear eskatu berari,
zerगतिकanen beraren kontra
ez dan mancharik ageri,*

*gaizkitzat nork artuko zuen
jendeak pekatu ori
orregatikan eskatsen diot
biotzetikan denari
barkaziyua gaizki egiña
aitortu det eta neri.*

(JEIZTEN DA BURTIÑA)

BUKAERA



